

PRESTAKUNTZA JARDUERARAKO DEIALDIA **2014-2015 PRESTAKUNTZA PLANA. PRESTAKUNTZA ATALA**

Izenburua: PING-PONGA GORPUTZ HEZKUNTZARAKO

Modalitatea: Mintegia

Etapia: Lehen eta Bigarren Hezkuntza

Norentzat: Iruñeko ILZko Gorputz Hezkuntzako irakasleentzat

Justifikazioa: ILZk, Nafarroako Ping-pong Federazioarekin elkarlanean, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan Gorputz Hezkuntzako programazioetan kirol minoritarioak sartu beharra ikusi du. Hori dela eta, mintegi hau sortu du Gorputz Hezkuntzako irakasleei ping-pongeko oinarritzko kontzeptuak eta abileziak transmititzeko asmoz, gerora gelan ikasunitate bat burutzeko gai izan daitezen.

Helburuak:

- Ping-ponga Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Gorputz Hezkuntzako programazioetan sartzea.
- Ikasgeletan ping-pong kirola irakasteko kontzeptu teorikoak eta oinarritzko abileziak ematea.
- Gorputz Hezkuntzako irakasleak ping-pongeko ikasunitate bat burutzeko gaitzea eta horretarako behar diren tresna eta material guztiak ematea.

Edukiak:

- Ping-pongaren oinarritzko araudia
- Jolasen eta ariketen bitartez, ping-pongaren oinarritzko teknikara hurbiltzea.
- Ikasunitate bat ikasgelan praktikara eramatea (bertaratu beharreko saioetan emanen da ikasunitatea).

Metodologia:

Mintegi hau bi zatitan banatuta dago. Lehenean bertaratu beharreko 2,5 orduko 6 saio izanen dira, gehienbat praktikoak. Bigarrenean parte-hartzaile bakoitzak ping-pongeko ikasunitate bat moldatu eta irakatsi beharko du ikasgelan, bere ikastetxean. Ikasunitate hori bertaratu beharreko saioen azken egunean emanen da.

Bertaratu beharreko saioen egunak honela daude antolatuta:

1. eguna: Araudia. Historia. Ping-pongaren elementuak.
2. eguna: Materialera hurbiltzea (jolasak eta ariketak, maharik gabe).
3. eguna: Teknika orokorra. Eskuin-kolpea eta sakea.
4. eguna: Errebes-kolpearen teknika. Norabidea eta desplazamenduak.
5. eguna: Efektudun kolpeak. Txapelketen antolaketa.
6. eguna: Bideoa. Zalantzak argitzea. Ikasunitatea azaltzea eta banatzea.

Mintegiaren bigarren zatian, ILZk behar den material guztia emanen die Gorputz Hezkuntzako irakasleei beren ikastetxean ikasunitatea 5 astez burutu dezaten. Ikastetxe bakoitzerako materiala hau izanen da: 5 taula, 5 sare, 30 pala eta 50 pilota.

Hizlaria/k: Iñaki Guelbenzu Fernández (Nafarroako Ping-pong Federazioko burua eta ping-pongeko arbitroa) eta Jesús Larrión Baños (Maisutzako diplomaduna Gorputz Hezkuntzako espezialitatearekin eta Nafarroako Ping-pong Federazioko teknikaria).

Arduraduna: Raket Laspidea Arnedo, Iruñeko ILZko aholkularia.

Helbide elektronikoa: fp.cap.pamplona@educacion.navarra.es, telefonoa: 948291712.

Lekua: Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa (CEIMD) eta Larrabide Estadioa (Zangoza kalea, 34, Iruña).

Lehenengo eta azkeneko 2 saio teorikoak CEIMDen ikasgeletan egingen dira eta 4 saio praktikoak, berriz, "Larrabide Estadioa" KTDaren kiroldegiko pista batean.

Iraupena: Bertaratu beharreko 15 ordu. 6 ordu gehiago ziurtatuko dira gelan ikasunitatea burutzeagatik. Parte-hartzaileek bertaratu beharreko saioen %80ra joan beharko dute.

Bertaratu beharreko saioen datak: Urriaren 13, 15, 16, 20, 22 eta 23an.

Ordutegia: 18:00etatik 20:30era

Izena emateko epea: Izena emateko azken eguna urriaren 8a izanen da.

Postu kopurua: 20

Parte-hartzaileen gutxieneko kopurua: 18

Betebeharrak: Jardunean izatea. Ez da behar ez alde aurreko ezagutzarik ez kirol hau praktikatzeko trebetasunik.

Parte-hartzaileak hautatzeko irizpideak: Izena emateko ordenaren arabera.

Hizkuntza: Gaztelania

Dokumentu erantsiak: Bertaratu beharreko 6 saioak bukatzean ping-pongeko ikasunitate makroa banatuko da, ikastaroan parte hartzen duten irakasleek moldatu eta beren ikastetxeetan irakats dezaten.

Oharrak:

Izena emateko epea amaituta, ahalik eta lasterren argitaratuko da jarduera honetarako onartuen zerrenda ondoko webgune honetan:

<http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/index.php?lang=eu>

